

Segmentu guztietako **dinamika komertzial handiagoa** eta produktuen **kontratzioko errekorrak** izan dira 2019ko lehen hiruhilekoko gakoetako batzuek

## **Kutxabankek 106,4 milioi euroko irabazia lortu du, %5,2 handiagoa**

- **Familiei eskainitako finantzazioa merkatuaren gaineratik hazi da, ia %30eko hazkundera izan baitu mailegu hipotekarioetan eta kontsumokoetan**
- **Banka-negoziaren sarrera errepikariak %1,6 hazi dira, interesen marjina %1,8 hazita eta aseguruaren ekarpen handiagoari esker**
- **Administrazio gastuei eusten jarraitzen die Bankuak, %1,3 murriztu dira**
- **Aktiboen kalitatearen etengabeko hobekuntzak eta zalantzazkoen saldoa 83 milioi murriztu izanak, berankortasun maila %3,63ra arte jaitsi dute**
- **Nahiz eta zuzkiduretarako beharrak apurrak izan, horiek indartzera bideratu dira emaitza ez-errepikariak, guztira 124,6 milioi euro**
- **Bezero digitalen kopuruak hazten jarraitu du, eta finantza-produktuen kontratazioan erabakigarriagoak dira. 10 erabiltzailetik 4 internetez aritzen dira, eta zerbitzuari geroz eta balorazio hobea egiten diote**

**2019ko apirilaren 25ean.** Kutxabank Taldeak 2019ko lehen hiruhilekoa **106,4 milioi euroko irabazi garbiarekin** amaitu du, iaz garai berean baino **5,2%** gehiago. CajaSur erakundearen ekarpen positiboa **8,1 milioi eurokoa** izan da, 2018ko lehen hiru hilabeteetan baino **%18,6** handiagoa.

Emaitza hau munduko ekonomiaren hazkunderako iragarpenak uste baino txikiagoak izango direla baieztatu ostean lortu dira. Horrek Euro gunean eragina izan du: lehena, EBZ-k 2020 urte amaierara arte atzeratu duela interes tipoen igoera. Zantzu positiboen artean, nabarmentzekoa da burtsek izan duten bilakaera ona, nahiz eta tentsio geopolitikoek sortutako ziurgabetasuna handia izan den.

Segmentu guztietako **dinamika komertzial handiagoa** eta produktuen **kontratzioko errekorrak** izan dira lehen hiruhilekoko gakoetako batzuk. **Bezeroen negozioa** merkatuaren batez bestekoaren gaineratik hazi da nabarmen, batik bat mailegu hipotekarioetan eta kontsumokoetan.

**Mailegu hipotekarioek** marka berria lortu dute, 2018ko garai berarekin alderatuta **%31,4** igo baitira. Horrez gain, kontsumo gaitara bideratutako maileguak **%20,2** hazi dira.

Honekin guztiarekin, Kutxabankek **900 milioi euro** bideratu ditu bezero dituen pertsona eta familien beharrianak asebetetzera, iaz baino **%29,7** gehiago.

Enpresen negozioarentzat aro zaila izan arren eta testuinguru ekonomikoa aurkakoa izan arren, Kutxabank Taldeak alor honetan ere merkatuaren bilakaera ganditu dira enpresen finantzazioan, Enpresen Bankako **inbertsio produktiboa %4,1** hazi baita, **%7,8 aktibo zirkulatzailea** eta **%11,1 ETEen deskontu komertziala**.

**Aseguruuen negozioak** sortutako sarrerek ere aldeko bilakaera izan dute. Jarduera honek **36 milioi** euroko ekarpena egin dio emaitzen kontuari, **%7,6** gehiago. Kontratatu diren aseguru berrien artean, aipatzekoak dira **heriotza polizak**, non beren primak **%45,4** hazi baitira, **%19 ordaintzen babesekoak** eta **%14,39 bizitza arriskukoak**.

Burtsen bilakaera positiboak **administraturiko baliabideen** hazkundera bideratu dute, negozio sareetan **%5,5** hazi baitira.

Honela, **banka-negozioaren sarrera errepikariak 265,7 milioi** eurora iritsi dira, **%1,6** gehiago.

**Dibidenduengatiko eta baliokidetasuneko** sarrerak **24,7 milioi** eurokoak izan dira, iragarritakoaren haritik.

**Finantza-operazioen emaitzek 5,5 milioi** euroko sarrerak izan dituzte, eta **Marjina Gordina 293,5** milioi eurora iritsi da.

Urteko lehen hiru hilabeteetan oso positiboa izan da **Administrazioko Gastuen** bilakaera, kostuei eusteko egiten ari den etengabeko ahaleginaren baitan **%1,3** jauzi baitira.

‘Beste emaitzak eta galerak’ epigrafean azpimarratzekoa da Euskaltelen errealizazioaren aparteko emaitza, Zuzkiduretara bideratu da Taldean ohikoa den zuhurtziazko irizpideen baitan.

### **Baliabideak sare guztietan hazi dira**

Negozio-sareek kudeatutako bezeroen baliabideak **%5,5** hazi dira, eta **61.335 milioi** eurora iritsi dira; izan ere, **%4,4ko** bilakaera izan dute xehekako sarean eta **%18,3koa** handizkakoan.

Balorazioen hobekuntzak eta bereganatzeetan izaniko erritmo onak lagunduta, **inbertsio fondoak %3,1** hazi dira -kontratazio gehienak Helmuga Fondoak eta Fondo Bermatuak izanik- eta **%1,1 pentsio planak. Ageriko aurrezkiaren saldoa %14,1** hazi da.

Taldeko aktiboen kudeaketako negozioarentzat ere oso hiruhileko emankorra izan da. Kutxabank Gestion eta **Fineco Banka Pribatua Kutxabank** bigarren Taldea izan dira inbertsio fondoan harpidetza garbien alorrean. Kudeatutako aktiboetarako dagokienez, bosgarren Taldea da.

### **Mailegu-inbertsio produktiboaren hazkundera**

Urteko lehen hiru hilabeteetan **mailegu-inbertsio produktiboa** xehekako negozioaren bultzadari esker hazi da, familien eta norbanakoen finantzazioan marka guztiak hautsita. Honenbestez, negozio sareen mailegu-inbertsio produktiboko saldoak hobetzen jarraitu du.

Enpresa txiki eta ertainen finantzazio jarduerak tonu onari eutsi dio eta merkatuan nagusi izan den joera gaitzera lortu du.

Higiezin merkatua moteldu egin den arren, Kutxabank Taldeak **%31,4** handitu du mailegu berrien kopurua, guztira **750 milioi euro** bideratuta. Honela Euskadin lehendik zuen merkatu kuota handitzen jarraitu du. Erkidegoan sinatzen diren hipoteka guztien **%39,4** Kutxabankenak dira.

### **Negoio digitala ongi doa**

Finantza-produktu berriak kontratatzerakoan, deigarria da geroz eta pisu handiagoa dutela ohiko bulegoak ez diren **kanal alternatiboek**, batik bat Euskaditik eta Cordobatik kanpo, alegia, bankuak duen bulegoen kopurua hain garrantzitsua ez den zonaldeetan.

Hipoteken esparruan, hedapen lurraldeetan azkenik sinatu diren mailegu guztien **%42** baino gehiago, **banka-bulegoetatik kanpo** negoziatzen hasi ziren, eta **%20 zuzenean 'online'** abiatu zen.

**Kontsumorako maileguen** alorra ere oso dinamikoa izan da, **Merkataritza Mailegua %50** hazi baita, alor komertzialak dituen indarraren eta fakturazio-maila onaren adierazle. **Mailegu pertsonalei** dagokienez, hauek **%20,2** igo dira.

**Online sinatzen** diren kontsumorako maileguetan ere igoera joera nabarmena sumatzen da, smartphone gailuen bitartez dela, edota Merkataritza Mailegua eskaintzen duten dendarien bitartez dela. Euskadin, kontratazio guztien **%32** bulegoetatik kanpo formalizatzen dira, eta beste besteko hori **%53raino** iristen da Estatuko beste zonaldeetan.

Online aritzeko geroz eta joera handiagoa duten bezeroei eskaintzen dien zerbitzua hobetu asmoz, hainbat baliabide digital berri ipini ditu Kutxabankek. Banka mugikorrek **Apple Pay** ordainketa zerbitzua bateratu du, eta horrez gain aseguruiei buruzko informazio erabilgarria, ordainketa agiriei buruzko informazioa, enpresentzako mugikor bidezko sinaketa anitza edota hipoteketan eskaintza pertsonalizatua ematen ditu.

Kutxabanken **bezero digital** deritzen lagunen batez bestekoa jadanik **%40koa** da, eta zerbitzuari ematen dioten balorazioa geroz eta hobe da.

### **80 milioi gutxiago zalantzazko aktiboetan**

Kutxabankek bere berankortasun-tasaren beherako joerari eutsi dio, izan ere **%3,63an** kokatu baita. Murrizketa horrek **23 oinarriko puntuko** jaitsiera ekarri du urteko lehen hiru hilabeteetan. Datu hori sektorearen batez bestekoa baino hobe da, sektorearen **%5,82koa** baitzen otsailean.

Hobekuntza honetan zalantzazko aktiboen saldoaren murrizketak lagundu du, **83 milioi** eurotan jaitsi baita epealdi horretan, eta **524 milioi** euro baino gehiagotan 2018ko martxoaren amaierarekin alderatuta.

Errentagarritasun ratio nagusiek Taldeak aurreikusitako bilakaeraren arabera aurrera egiten jarraitu dute, eta negozioaren eta banku aldagaien bilakaera onak bultzatuta. **ROTE %6,9ra** iritsi da eta **ROA %0,6ra**. Horrez gain, **eraginkortasun-ratioa %52,5koa** da

Bere kaudimen-indizeen etengabeko hobekuntzaren ildotik, Taldearen **Core Tier I (Phase in)** oinarriko 10 puntu hobetu da lehenengo hiruhilekoan, eta **%16,2ra** iritsi da dagoeneko.

**Kutxabank Taldearen emaitzak, 2019ko lehen hiruhilekoan**

Miloi euro	2019 Martxo	%Δ
Interesen Marjina	140,0	1,8
Komisioak eta aseguruak (*)	125,7	1,3
<b>Banka negozioaren sarrera errepikariak</b>	<b>265,7</b>	<b>1,6</b>
Dibidenduak eta baliokidetasunak	24,7	-13,1
ROF (**)	5,5	52,8
Beste Ustiapen Gastuak (*)	-2,5	80,7
<b>Marjina Gordina</b>	<b>293,5</b>	<b>0,4</b>
Administrazio Gastuak	-150,3	-1,3
Amortizazioak	-13,3	1,1
<b>Ustiapen Marjina</b>	<b>129,8</b>	<b>2,5</b>
Saneamenduak eta narriadurak (**)	-124,6	137,1
Beste irabazi eta galerak (**)	97,7	114,6
Zergak eta bestelakoak	3,4	-118,6
<b>Taldearen emaitza</b>	<b>106,4</b>	<b>5,2</b>

(\*) Taldearen aseguru konpainien emaitzak 'Komisioak eta aseguruak' atalean erakusten dira, 'Beste ustiapen emaitzak' atalean izan ordez

(\*\*)Konparatu ahal izateko, salmenten, ondare-tresnen eta partaidetzen errealizazioko emaitzak 'Beste irabazi eta galerak' epigrafean erakusten dira, eta zor-tresnen narriadurak 'saneamenduak eta narriadurak' atalean